

Zaldibarko zabortegiaren inguruko uren kalitatearen jarraipen-txostena



2020/02/14

Aurkibidea

Zaldibarko zaborteziaren inguruko uren kalitatearen jarraipen-txostena.

2020 Otsailaren 14a.

1. Laginak hartzea.....	3
2. Analisisien emaitzak.....	7
3. Analisisien emaitzen interpretazioa eta ondorioak.....	8
4. Oharrak.....	8

1. Laginak hartzea

Zaldibarko zabortegiko urak zaintzeko planean ezarritakoarekin bat etorriz (*Verter Recycling 2002 S.L.*)¹, jarraian zehazten den laginak hartzeko programa egin da:

1.1. EGUNERO HARTUTAKO LAGINEN ZERRENDA

Otsailaren 7tik 13ra arte, lagin hauek jaso dira

- **2020ko otsailaren 07an**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixolatik ibaian gora	12:00
2	Ibarbidearen draina	13:10
3	Aixolatik ibaian behera	14:15

- **2020ko otsailaren 08an**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
4	Ego 1	12:45
4'	Ego 2	13:30

- **2020ko otsailaren 9an**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
4	Ego 1	10:45
4'	Ego 2	11:30

- **2020ko otsailaren 10ean**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixolatik ibaian gora	10:30
2	Ibarbidearen draina	11:15
3	Aixolatik ibaian behera	12:00
4	Ego 1	12:45
5	Ibur	13:30

¹ Hemen eskuragarri:

http://www.uragentzia.euskadi.eus/contenidos/informacion/seguinte_ultimos_informes/eu_def/adjuntos/Zaldibar-zabortegiko-uren-jarraipenerako-plana-2020.pdf

- **2020ko otsailaren 11n**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixolatik ibaian gora	09:45
2	Ibarbidearen draina	10:30
3	Aixolatik ibaian behera	11:00
4	Ego 1	12:15
5	Ibur	11:45

- **2020ko otsailaren 12an**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixolatik ibaian gora	09:45
2	Ibarbidearen draina	10:15
3	Aixolatik ibaian behera	10:45
4	Ego 1	12:45
5	Ibur	11:30

- **2020ko otsailaren 13an**

Laginaren hartze-puntua	Laginaren identifikazioa	Ordua
1	Aixolatik ibaian gora	09:30
2	Ibarbidearean draina	10:00
3	Aixolatik ibaian behera	11:15
4	Ego 1	12:15
5	Ibur	11:45
6	Eitzagaetxebarria	10:15
7	Ibarbidearen drainaren parean	13:00


Halaber, otsailaren 11n, "Kutsatzaileak antzematzeko" laginak hartu ziren 2. eta 3. puntuetan.

Otsailaren 13an 2 laginketa bi hartze-puntu berriren indartu da:

Seigarren puntu bat zehaztu da zaborteziaren mendebaldeko ibarrean egon daitezkeen lizibiatuentzat, baina orain arte ez da ikusi eremu horretan ur-jariorik.

Zazpigarren puntu antzemandako isurketa puntu berri bati dagokio: ibarbidearen drainaren parean.

1.2. HARTUTAKO LAGINEN HARTZE-PUNTUA



1.3. ETENGABEKO KONTROL-SAREA

Otsailaren 12an kontrol-estazio bat jarri da 3. kontrol-gunean (Aixola edo Beko erreka) (Ego ibaiarekin bat egin aurretik) denbora errealean datuak lortzeko. Helburua da zabortegean jatorria izan dezaketen lixibiatuek uraren egoera fisiko-kimikoan eragindako aldaketak berehala identifikatzeko adierazleei jarraipena egitea, dagozkion kontrolak edo neurriak hartu ahal izateko.

Estazioak ur-mailaren sentsoreak, 25º-tan eroankortasuna eta temperatura neurtzen ditu (Disolbaturiko solidoak eta gazitasuna automatikoki kalkulatu).

Neurtze hori 10 minuturo egiten da, eta egunero 8: 30tan eta 15: 30tan eguneratzen dira zerbitzari informatikoetan, normaltasun-baldintzetan; alerta-kasuan, orduro.

2. Analisisien emaitzak

- **2020ko otsailaren 7, 8 eta 9ko laginak.**

Orain arte parametro hauen emaitza analitikoak lortu dira:

Olioak eta koipeak, kloro librea, kloruroak, kolorea, eroankortasuna, Detergente anionikoak, OEK, fluoruroak, nitrogeno amoniakala, pH, S.S. sulfatoak, sulfitoak eta sulfuroa.

- **2020ko otsailaren 10ko laginak.**

Orain arte parametro hauen emaitza analitikoak lortu dira:

Kloro askea, kloruroak, eroankortasuna, Detergente anionikoak, OEK, fluoruroak, nitrogeno amoniakala, pH, S.S. sulfatoak, sulfitoak eta sulfuroa.

- **2020ko otsailaren 11, 12 eta 13ko laginak.**

Orain arte parametro hauen emaitza analitikoak lortu dira:

Eroankortasuna eta pH-a.

- **Etengabeko kontrol-sarea**

Otsailaren 12tik Aurrera, Kontrol-estazioan denbora errealean eroankortasuna, tenperatura eta td-ak (solido disolbatuak) biltzen ari dira.

3. Analisi-emaitzen interpretazioa eta ondorioak

Ez da aldaketa nabarmenik izan, astearteko euriteek eragindako 2. kontrol-puntuaren (drain ibartarra) emariaren handitzeaz aparte (0,6l/s-kora arteko igoera). Era berean, 2. Eta 7. puntuan aztertutako azken laginek eroankortasuna eta PHaren haztea antzeman dute: Halere, hiriko hondakin-uretan detektatu ohi diren kontzentrazioen antzeko emaitzak ematen jarraitzen dituzte.

Orain arte, zehaztapen analitikoek erakusten dute parametro jakin batzuen kontzentrazioak antzekoak direla bai ibarbideko drainazetik gora, bai ibaian behera.

Era berean, kontrol-estazioan denbora errealean lortutako lehen erregistroek ez dute azpimarratu beharreko egoerarik islatzen, ez dute ez ohikotasunik adierazten; beraz, ez da zaborteziaren eraginik detektatzen ari.

4. Oharrak

Asteburuan, eguneroko laginketa eta jarraipen lanok jarraituko dute. Intzidentziarik eman ezean, hurrengo lagin-emaitzen jakinarazpena astelehenean, hilak 17an, argitaratuko da.